# 2020-2021-2022-EGONKORTZEKO EPE-A OHIKO GALDERAK

1. **2020-2021-2022-Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza argitaratzea**
2. **Parte hartzeko baldintzak**
3. **Prozesuan izena ematea**
4. **Informazio gehiago lortzeko bideak**

## 1.- 2020-2021-2022-EGONKORTZEKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ARGITARATZEA

**2022ko abenduaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian**, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko **1736/2022 Ebazpena** argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020/2021/2022 urteetako eta Egonkortzeko deialdietan sartutako hautaketa-prozesuak arautzen dituzten **oinarri orokorrak** onartzen dira.

**2022ko abenduaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,** argitara eman ziren 2020-2021-2022 urteetarako eta Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintzaren 110 kategoriaren **oinarri espezifikoak**.

**Zein kategoria sartzen dira deialdian?**

2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintzaren deialdia 2022ko abenduaren 27ko EHAAn argitaratu zen, talde bakarrean, kategoria hauetarako:

- ALERGOLOGIAKO FEM
- ANATOMIA PATOLOGIKOKO FEM
- ANESTESIAKO ETA BIZKORKETAKO FEM
- ANGIOLOGIAKO ETA KIRURGIA BASKULARREKO FEM
- DIGESTIO APARATUKO FEM
- KARDIOLOGIAKO FEM
- KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO FEM
- KIRURGIA KARDIOBASKULARREKO FEM
- KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO KIRURGIAKO FEM
- AHOKO ETA AURPEGI MASAILETAKO KIRURGIAKO FEM
- KIRURGIA PLASTIKO, ESTETIKO ETA KONPONTZAILEKO FEM
- KIRURGIA PEDIATRIKOKO FEM
- TORAXEKO KIRURGIAKO FEM
- ZAINKETA ARINGARRIEN FEM
- FAMILIAKO FEM
- DERMATOLOGIAKO FEM

- EMERGENTZIETAKO FEM
- ENDOKRINOLOGIAKO FEM
- GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN ARLOKO FEM
- EPIDEMIOLOGIAKO FEM
- HEMATOLOGIAKO FEM
- ETXEKO OSPITALIZAZIOKO FEM
- LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM
- MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO FEM
- MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO FEM
- BARNE-MEDIKUNTZAKO FEM
- MEDIKUNTZA NUKLEARREKO FEM
- PREBENTZIO-MEDIKUNTZAKO ETA OSASUN PUBLIKOKO FEM
- NEFROLOGIAKO FEM
- PNEUMOLOGIAKO FEM
- NEUROKIRURGIAKO FEM
- NEUROFISIOLOGIAKO FEM
- NEUROLOGIAKO FEM
- OBSTETRIZIAKO ETA GINEKOLOGIAKO FEM
- OFTALMOLOGIAKO FEM
- ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO FEM
- ONKOLOGIA MEDIKOKO FEM
- OTORRINOLARINGOLOGIAKO FEM
- PEDIATRIAKO FEM - LMAT
- OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM
- PSIKIATRIAKO FEM
- HAUR PSIKIATRIAKO FEM
- ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM
- ERREUMATOLOGIAKO FEM
- KSU-KO FEM
- OSPITALEKO LARRIALDIEN FEM
- UROLOGIAKO FEM
- ANALISI KLINIKOKO FEMT
- BIOKIMIKA KLINIKOKO FEMT
- MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO FEMT
- IMMUNOLOGIAKO FEMT
- OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO FEMT
- OSPITALEKO FARMAZIAKO FET
- IKERKUNTZA UNITATEKO FEMT
- BIOLOGIAKO FET
- FARMAZIAKO FET
- ODONTOLOGIAKO FET
- PSIKOLOGIA KLINIKOKO FET
- ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (BERDINTASUNEKO GMT - GMT ITZULTZAILE-INTERPRETEA)

- GOI-MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOA
- MANTENTZE-LANETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- SEGURTASUNEKO ETA HIGIENEKO PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ERGONOMIAKO ETA PSIKOSOZIOLOGIAKO PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- LOGOPEDIAN DIPLOMADUNA
- OPTIKAN ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA
- ERIZAINA
- LAN-OSASUNEKO ERIZAINA
- OSASUN MENTALEKO ERIZAINA
- FISIOTERAPEUTA
- EMAGINA
- TERAPEUTA OKUPAZIONALA
- MANTENTZE-LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
- SEGURTASUNEKO ETA HIGIENEKO PREBENTZIOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA (+ ARKITEKTO TEKNIKOA)
- ELEKTROMEDIKUNTZAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
- EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
- GIZARTE-LANGILEA
- ANATOMIA PATOLOGIKOKO TEKNIKARIA
- AUDIOPROTESIKO TEKNIKARIA
- DIETETIKAKO TEKNIKARIA
- DOKUMENTAZIO SANITARIOKO TEKNIKARIA
- AHO-HORTZEN HIGIENEKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- LABORATEGIKO TEKNIKARIA
- ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA
- ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA
- ADMINISTRARIA
- SUKALDARIA
- INFORMATIKAKO TEKNIKARIA
- ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
- GIROTZE-INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA
- FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
- ERIZAIN LAGUNTZAILEA
- ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
- ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARIA
- GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA
- LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
- JOSTUNDEGIKO OFIZIALA
- AROTZERIAKO MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA
- MANTENTZE-LAN ELEKTRIKOETAKO OFIZIALA
- INSTALAZIOEN MATENTZE-LANETAKO OFIZIALA
- MANTENTZE-LAN MEKANIKOETAKO OFIZIALA
- PINTURAKO MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA
- BEROGAILUEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA - ITURGINA
- ZELADOREA
- ZERBITZUETAKO LANGILEA

Kategoria horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik martxoaren 20ko 14:00ak arte egongo da zabalik.

**Noiz izango dira azterketak?**

2022ko abenduaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako deialdian zehaztutako kategorietako hautaketa-probak 2023ko uztailetik aurrera egitea aurreikusten da. Hautaketa-prozesuaren oinarri orokorretan adierazitako bitartekoen bidez emango da datei buruzko informazio gehiago.

**Nolakoak izango dira azterketak?**

Oposizio-lehiaketa bidezko prozedura aurreikusita duten kategorietan, azterketak ariketa bat edo bi izango ditu, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Lehenengo ariketan (teorikoa) gai-zerrenda komunari dagozkion galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera multzotik aterako dira (galdera sorta).

Galdera sorta hori Osakidetzaren webgunean egongo da eskuragarri, izena emateko eskaerak aurkezteko epean.

Gai-zerrenda orokorrari buruzko galderak prestatzeko bibliografia kategoria bakoitzaren oinarri espezifikoen IV. eranskinean zehaztuko da.

## 2.- PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

**Nork eman dezake izena Osakidetzako 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuan?**

Izena emateko eskaerak aurkezteko azken egunean 1736/2022 Ebazpenean eta parte hartu nahi den kategoriaren oinarri espezifikoetan ezarritako eskakizunak betetzen dituen edonork.

**Zein dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak?**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 6.2 oinarrian zerrendatzen dira. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020/2021/2022 urteetako eta Egonkortzeko deialdietan sartutako hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dira.

Funtsean, honako hauek dira:

a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunaren arabera langileen joan-etorri askea aplika dakiokeen estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Era berean, onartuak izan daitezke aurreko paragrafoan aipatzen diren nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta izangaiaren eta bere ezkontidearen ondorengoak ere, baldin eta bi ezkontideak ez badaude zuzenbidez bananduta, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere euren kargu bizi badira.

b) Adina: 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

c) Titulua: deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki behar da, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo titulua ondorio profesionaletarako aitortuta eduki behar da, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (otsailaren 21eko 103/2014 Errege Dekretuak aldatu zuen errege-dekretu hori).

Homologazio- edo aitorpen-prozesuaren ondoren lortutako titulazioak geroago aurkeztea onartuko da, betiere homologazio- edo aitorpen-eskabidea hautaketa-prozesu honetan izena emateko epea amaitu baino lehen egin bada. Egoera horretan dauden eta azterketa gainditu duten izangaiek destinoak aukeratzeko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko dute eskatutako titulazioa.

d) Gaitasun psikofisikoa. Destinoan normaltasunez jarduteko behar den gaitasun psikofisikoa izatea. Gaitasun hori egiaztatzeko, hautaketa-prozesua gainditu ondoren, izangaiak azterketa medikoa egin beharko du horretarako zehaztuko den zentroan. Ezinbestekoa izango da eskakizun hau betetzea lanpostuaz jabetu ahal izateko.

e) Diziplina-espediente bidez osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batetik bereizita ez egotea, enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaikuntzarik edo desgaikuntza berezi irmorik ez izatea, eta adingabeekin lanbidean jardutea eragozten duen kausaren batean ez egotea, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluan xedatutakoaren arabera eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean ezartzen denaren arabera, zeinaren bidez Osakidetzako adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen baitira.

Bestalde, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenarekin bat etorriz, a) paragrafoan aipatutako beste estatu batzuetako nazionalitatea duten pertsonek edota Espainiakoaz gain beste nazionalitate bat dutenek, gainera, ezin dute egon desgaituta edo egoera baliokidean, ezin dute izan jatorrizko herrialdean edo nazionalitatea duten herrialdean funtzio publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik, eta ezin dute egon Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluan aipatzen diren eta adingabeekin lan egitea eragozten dien delituengatik epai irmo bidez kondenatuta beren jatorrizko herrialdean edota nazionalitatea duten herrialdean.

f) Esleitutako destinoan lanean hasteko unean izangaia ezin da egon indarreko araudiaren araberako ezintasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta; hala ere, ez da eragozpen izango interesdunak aukera egin dezan.

Destinoa esleitu aurretik agintaritza eskudunak parte hartzen den kategoriarekin / lanpostu funtzionalarekin bat datorren ohiko lanbideari dagokion ezintasun iraunkor absolututuko edo ezintasun iraunkorreko egoera onartzen badu, atal honetan ezarritako eskakizuna ez betetzat joko da. Egoera horretan dagoen pertsonak Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio egoera hori, ezintasun iraunkorra aitortzeko jakinarazpena jasotakoan.

g) Jabetzan lanposturik ez izatea estatutupeko langile finko gisa lortu nahi den kategoria berean, edozein dela ere haren administrazio-egoera.

Oinarri hauetan arautzen den prozesuak dirauen bitartean izangaiak Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batean hartzen badu lanpostu bat jabetzan hautagai den kategoria bereko estatutupeko langile finko gisa, hala jakinarazi beharko dio Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari lanpostua lortutakoan.

h) Inskripzio-eskubideak ordaintzea: dagokion kategoriarako eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu izana inskripzio-eskubideak.

i) Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik (sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeen galbideratzea, bai eta gizakien salerosketa ere) epai irmo bidez kondenatuta ez egotea, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluan ezarrita dagoenari jarraikiz.

j) Oinarri espezifikoetan ezartzen den beste edozein eskakizun betetzea, hizkuntza-eskakizuna barne, eskakizun hori sartzeko eskakizuna den kasuetan.

**Nola jakin dezaket deialdi bakoitzean eskatzen den titulazioa?**

Sartzeko titulazioak Osakidetzako Lanpostu Funtzionalen Dekretuan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan arautzen dira.

**Zer titulazio behar dute administrariek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategoria honetan parte hartzen duten izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua; Microsoft PowerPoint 2000/XP/2003/2007/2010; Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua, eta Microsoft Access 2000/XP/2003 maila aurreratua. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

**Zer titulazio behar dute administrari laguntzaileek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategoria honetan parte hartzen duten izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizko maila. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

**Zein epe daukat Administraria eta Administrari Laguntzailea kategorietako IT Txartela (eskakizuna) lortzeko?**

Kategoria bakoitzaren eskaerak aurkezteko epearen azken egunera arte lor daitezke eskakizun gisa aurkeztu behar diren IT Txartelak.

**Zer titulazio behar dute erradiodiagnostikoko teknikariek eta erradioterapiako teknikariek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Zer titulazio behar dute antolakuntzako goi-mailako teknikariek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikariek eta itzultzaile-interpreteek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Zer titulazio behar dute administrazioko eta kudeaketako erdi-mailako teknikariek eta arkitekto teknikoek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Zer titulazio behar dute aho-hortzen higieneko teknikari espezialistek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Zer titulazio behar dute mantentze lanetako ofizialek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Zer titulazio behar dute joskintzako ofizialek?**

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

**Noizko bete behar ditut hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak?**

Eskakizunak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, oinarrietan aurreikusten diren salbuespenetan izan ezik, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko da esleitzen den destinoaz jabetu arte (Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 6.1 oinarria).

## 3.- PROZESUAN IZENA EMATEA

**Nola eman dezaket izena?**

Eskabidea Internet bidez egingo da, Osakidetzaren web-orrian dagoen eredua betez, helbide honetan: www.osakidetza.euskadi.eus

Salbuespenez, ondoko tokietan eskabideak aurkezteko egokituko diren lekuetara joanda egin ahal izango da: Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz. Komunikabideetan eta Osakidetzaren webgunean jakinaraziko da toki horiek zehatz-mehatz non dauden.

Eskabidea Internet bidez betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren KZgunea zentro publikoak erabili ahal izango dira, eta zentroen zerrenda helbide honetan kontsultatu ahal izango da: www.kzgunea.net

Prozesuan onartua izateko, eskabideak epe barruan eta behar den eran aurkeztu behar dira, eta inskripzio-eskubideak ordaindu behar dira.

***Hautaketa-prozesu honetan BERRIKUNTZA gisa***, izena emateko eskaera bakarra izango da kategoria / lanpostu funtzional bakoitzerako, baina bi prozedura sortuko dira: lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea (oinarri espezifikoetan fase hori aurreikusten den kategorietan).

◆Lehiaketa-oposizioko blokeak bi fase izango ditu: batetik, merezimenduak baloratzeko lehen fasea, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritako baremoaren eta mugen arabera, eta, bestetik, oposizio-fasea, non hautaketa-proba edo -probak egingo diren, kategoria bakoitzean dagokionaren arabera.

Bloke honetan, honako hauek izango dira txandak, kupoak eta modalitateak:

a) Txanda irekia:

– Sarbide orokorra.

– Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoa: adimen-desgaitasunaren kupoa edo bestelako desgaitasunen kupoa.

b) Barne-sustapeneko txanda:

– Sarbide orokorra.

– Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoa: adimen-desgaitasunaren kupoa edo bestelako desgaitasunen kupoa.

◆Lehiaketako blokeak fase bakarra izango du, merezimenduak baloratzekoa, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritako baremoaren eta mugen arabera.

Bloke horretan, salbuespenezkoa denez, sartzeko txanda eta modalitate bakarra egongo da: txanda irekia – sarbide orokorra. Hau da, ez da barne-sustapeneko txandarik egongo, ez eta desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kuporik ere.

Beraz, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan behar bezala izena ematen duten pertsona guztiak automatikoki sartuko dira lehiaketa-oposizioko blokean eta lehiaketako blokean, oinarri espezifikoek hala aurreikusten duten kategorietan.

Lehiaketa-oposizioko blokearen barne-sustapeneko txandan parte hartzen duten izangaiek lehiaketako blokearen txanda ireki orokorrean ere parte hartuko dute, eta lehiaketako blokeko sailkapenean sartuko dira, merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa soilik kontuan hartuta.

Lehiaketa-oposizioko blokean desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoan (adimen-desgaitasuneko kupoa eta bestelako desgaitasunen kupoa) parte hartzen duten izangaiek lehiaketako blokeko txanda irekian ere parte hartuko dute, eta lehiaketako blokeko sailkapenean sartuko dira, merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa soilik kontuan hartuta.

**Nola ordain ditzaket izena emateko eskubideak?**

Izena emateko eskubideak eskaerak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira, honako erakunde laguntzaileetako edozeinetan: Kutxabank, Euskadi Kutxa/Caja Laboral, La Caixa eta BBVA. Erakunde horien sukurtsaletan ordaindu nahi izanez gero, eskabide-orria aurkeztu beharko da finantza-erakunde laguntzailean, eta erakunde horrek, dirua sartu ondoren, mekanikoki baliozkotuko du ordainketa.

Internet bidez ordaintzea aukeratuz gero, eskabidean inskripzio-eskubideak ordaintzeko aurreikusitako atalak bete beharko dira.

Eskabidea osatzeko, inskripzio-eskubideari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenean xedatutakoaren arabera eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Inskripzio-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barnean ordaindu ezean, izangaia prozesutik kanpo geratuko da, eta ezingo da akats hori gerora zuzendu. Aurrekoa gorabehera, ordaindutako zenbatekoan akatsen bat eginez gero, izangaiak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duen ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epearen azken egunera arte zuzendu ahal izango du akats hori.

**Zer epe daukat eskabidea aurkezteko eta izena emateko eskubideak ordaintzeko?**

Hilabeteko epea dago, <u>2023ko otsailaren 21etik martxoaren 20ko 14:00ak arte</u>, eskabidea aurkezteko eta inskripzio-eskubideak ordaintzeko. Salbuespen gisa, deialdiaren inguruabarrek hala eskatzen dutenean, hilabeteko epea luzatu ahal izango da oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenak ezartzen duen epean.

**Izena emateko eskabidea betetzean huts egin badut, zuzen dezaket?**

Bai, bi momentu daude zuzenketa egiteko:

1) Izena emateko epearen barruan: inskripzio-formularioan edo inskripzio-eskubideen ordainketan jasotako datuetan egindako akatsak zuzendu ahal izango dira (kopuru okerra edo tasak ez ordaintzea).

2) Izena emateko epea amaitu eta onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, <u>betiere izena emateko eskubideak ordaindu badira</u>: inskripzio-inprimakian jasotako datuetan egindako akatsak (adibidez, datu pertsonalak, kupoan edo parte hartzen den txandan izandako akatsak) eta tasen zenbatekoan egindako akatsak zuzendu ahal izango dira. Horretarako, erreklamazio bat aurkeztu

beharko da, ebazpen hori Osakidetzaren webgunean argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan.

Epe hori igarota, ezin izango da erreklamaziorik edo zuzenketarik egin.

**Zein txandatan parte har dezaket?**

Lehiaketa-oposizioko blokean, bi txandetako batean soilik parte har dezakezu: txanda irekian edo barne-sustapenean (oinarri espezifikoek hala adierazten duten kategorietan).

Lehiaketako blokean, txanda irekian baino ezingo da parte hartu.

Hala ere, lehiaketa-oposizioko blokearen barne-sustapeneko txandan parte hartzen duten izangaiek lehiaketako blokearen txanda ireki orokorrean ere parte hartuko dute, eta lehiaketako blokeko sailkapenean sartuko dira, merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa soilik kontuan hartuta.

**Txanda bakoitzaren barruan, zein dira sartzeko kupo eta modalitateak?**

Lehiaketa-oposizioko blokean, txanda bakoitzaren barruan (barne-sustapena eta txanda irekia), sartzeko modalitate orokor bat eta desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupo bat daude, oinarri espezifikoek hala adierazten duten kategorietan.

Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupo horretan, bi modalitate daude, oinarri espezifikoek hala adierazten dutenean:

- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa
- Bestelako desgaitasunen kupoa (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun)

Lehiaketako blokean ez da kuporik egongo desgaitasuna duten pertsonentzat.

**Zer eskakizun bete behar ditut barne-sustapeneko txandan parte hartzeko?**

Eskakizun orokorrak betetzeaz gain, honako hauek ere bete behar dituzu:

a) Langile finkoa izatea eta zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea aukeratu duen kategoria ez den beste kategoria eta lanpostu funtzional batean egotea, betiere lanpostua lortzeko eskatzen den titulua jatorrizko kategoriaren kategoria berekoa edo goragokoa bada, eta egoera horretan jarraitzea esleitzen zaion destinoaz jabetu arte.

   Kategoria desberdintzat hartzen dira titulazio akademiko edo espezialitate jakin bat izatea eskatzen ez dutenak eta hautaketa-prozesu bereizien bidez atzitzen direnak edo espezialitate bera eskatu arren eremu asistentzial desberdinetakoak direnak (Lehen Mailako Arreta edo arreta espezializatua).

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko jatorrizko kategorian eta lanpostu funtzionalean bi urteko zerbitzua bete izana langile finko gisa.

Ezin izango dute txanda honetan parte hartu kategoria eta lanpostu funtzional bereko langile finkoak diren izangaiek.

**Barne-sustapeneko txandan izena eman dut, baina ez ditut eskakizunak betetzen eskabideak aurkezteko epearen azken egunean. Zer gertatuko da nire eskaerarekin?**

Kasu horretan, eskaera txanda irekira eramango da automatikoki, eta horrela argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpenean.

**Barne-sustapeneko txandan izena ematen dut; eskabideak aurkezteko azken egunean txanda horretan parte hartzeko eskakizunak betetzen ditut; barne-sustapeneko txanda honetan onartuta nago, baina txanda horretako eskakizunak betetzeari utzi diot esleitzen didaten destinoaz jabetu aurretik. Zer gertatuko da nire eskaerarekin?**

Kasu honetan, baldin eta langile finkoa izateari eta zerbitzu aktiboko egoeran, senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian egoteari uzten badiozu lortu nahi duzun jatorrizko kategorian eta lanpostu funtzionalean (lortu nahi duzunaren ezberdina bada), prozesutik kanpo geratuko zara.

**Non adierazten da txanda bakoitzean sartzen diren eta desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuta dauden lanpostuen kopurua?**

Kategoria bakoitzeko oinarri espezifikoen II. eranskinean zehazten dira txanda bakoitzean sartzen diren lanpostuen kopurua eta, hala bada, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lanpostuen kopurua.

**Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskuduna, IMSERSO edo baliokidea) adimen-desgaitasuna aitortu dit ebazpen bidez, eta aitortza hori indarrean dago eskaerak aurkezteko epearen azken egunean**. Zein txandatan eta kupo-modalitatetan eman dezaket izena lehiaketa-oposizioko blokean?

Adimen-desgaitasunaren kupoan izena eman dezakezu, baldin eta parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori badago barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian.

***Hautaketa-prozesu honetan BERRIKUNTZA gisa***, adimen-desgaitasunaren kupoan izena ematen duten pertsonek PDF formatuan aurkeztu beharko dituzte horren egiaztagiriak, inskripzioa egitean.

Parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan adimen-desgaitasuneko kupo hori ez badago barne-sustapeneko txandaren edo txanda irekiaren barruan, beste desgaitasun batzuen kupoan inskriba zaitezke (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun).

Parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan ez badago desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kuporik, sarbide orokorreko txanda irekian eman dezakezu izena edo, barne-sustapeneko txandako eskakizunak betetzen badituzu, barne-sustapenean.

**Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskuduna, IMSERSO edo baliokidea) adimen-desgaitasuna ez den % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortu dit ebazpen bidez, eta aitortza hori indarrean dago eskaerak aurkezteko epearen azken egunean. Zein txandatan eta kupo-modalitatetan eman dezaket izena lehiaketa-oposizioko blokean?**

Beste desgaitasun batzuen (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) kupoan eman dezakezu izena, baldin eta parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori badago barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian.

Parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan ez badago desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kuporik, sarbide orokorrean eman dezakezu izena.

**Adimen-desgaitasunaren kupoan parte hartzea eskatzen badut, nola eta noiz egiaztatu behar dut agiri bidez adimen-desgaitasuna?**

Adimen-desgaitasuna egiaztatzeko, adimen-desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpen hori Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskudunak, IMSERSOk edo baliokideak) emango du, eta indarrean egon behar du eskaerak aurkezteko epearen azken egunean.

Dokumentazio hori hautaketa-prozesuan izena emateko epean aurkeztu beharko da, eta, salbuespen gisa, epe hori amaitu eta hurrengo hilabetean.

**Adimen-desgaitasuneko kupoan parte hartzeko eskaera egin dut, baina ez dut eskabidearekin batera desgaitasun hori egiaztatu. Zer gertatuko da halakoetan?**

Eskabidea bestelako desgaitasunen kupora (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) eramango da, horretarako eskakizunak betetzen badituzu. Bestela, hala badagokio, sarbide orokorreko modalitatera eramango da.

**Nola eta noiz egiaztatu behar dut agiri bidez adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun?**

Adimen-desgaitasuna ez den % 33ko edo gehiagoko beste edozein desgaitasun egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpen hori Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskudunak, IMSERSOk edo baliokideak) emango du, eta indarrean egon behar du eskaerak aurkezteko epearen azken egunean.

Dokumentazio hori onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztu beharko da, eskakizunak eta merezimenduak alegatzeko ezarritako epean.

**Bestelako desgaitasunen kupoan (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) parte hartzeko eskaera egin dut, baina ez dut eskabidearekin batera desgaitasun hori egiaztatu. Zer gertatuko da halakoetan?**

Eskaera sarbide orokorreko modalitatera eramango da, horretarako eskakizunak betetzen badituzu.

**Aukera al dezaket 2016-2017ko EPEko edo 2018-2019ko EPEko oposizio-faseko nota gordetzea?**

Ez; 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEko hautaketa-prozesu honetan ez dago aukera hori.

